

EBAZPENA, GIPIIZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAREN KONTRATAZIO MAHAIK 2016KO UZTAILAREN 27AN EGINDAKO BILKURAN HARTUTAKOA, 001/2016 KONTRATUA ESLEITZEKO JASOTAKO ESKAERAK AZTERTZEKO (AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALEKO PARKETXEA ETA ARANTZAZUKO ATERPETXEA ERABILI ETA KUDEATZEA: ZENTROEN ARRETA ETA DINAMIZAZIOA).

Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren Patronatuak 2016ko ekainaren 24ko akordioaren bidez erabaki zuen 001/2016 espedientea onartzea, Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko (Oñati), "Parketxea eta Arantzazuko aterpetxea erabili eta kudeatzea: zentroen arreta eta dinamizazioa" izeneko kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko, gehienez 50.000 euroko aurrekontua duela, fundazioko patronatuaren erabakian onartutako baldintza administratiboen eta ezaugarri teknikoaren arabera.

Kontratua, dituen zenbatekoa eta edukia aintzat hartuta, 2. mailako kontratu gisa sailkatu zen Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioko Patronatuak 2010eko irailaren 13an onartutako barne kontratazioko arauen arabera. Arau horiek Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren webguneetan argitaratu ziren (). Hala, kontratua, oro har, prozedura negoziatu bidez esleitu ahal izango da, baina baita prozedura ireki bidez ere, Fundazio Patronatuak, berme eta gardentasun handiagoa lortzeko, hala erabakitzen badu, hain zuzen, 2016ko ekainaren 24an egin zuen bezala

Lizitazio deialdia, baldintza administratiboen agiriak eta ezaugarri teknikoan agiriak 2016ko ekainaren 28an argitaratu ziren GIPIIZKOAKO PARKETXE SAREA Fundazioaren webguneetan (eta iragarkia ikusgai dago oraindik ere, kontratazioko barne arauen 12. puntuan zehaztutakoa betez, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 159. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Proposamenak aurkezteko epea 2016ko uztailaren 19an amaitu zen, eta honako hau jaso da:

- o ARTELATZ INGURUMEN ZERBITZUAK SL enpresak proposamena aurkeztu zuen 2016ko uztailaren 19an.

Kontratazio Mahaia 2016ko uztailaren 27an bildu zen aurkeztutako proposamena aztertu eta baloratzeko. Batzartu ziren Mahaiaren lehendakari gisa, Aranzazu Ariztimuño Larraza andrea (Patronatuko lehendakariordea), mahaikide gisa, Luis Maria Zaldua Etxabe jauna (Fundazioaren zuzendaria) eta idazkari gisa, Alfonso Acarreta Rodriguez jauna (hitzarekin baina botorik gabe).

Kontratazio Mahaiko kideek, proposamena aztertu ondoren, eta proposatutako eskaintzan ezarritakoaren arabera, eta "Parketxea eta Arantzazuko aterpetxea erabili eta kudeatzea: zentroen arreta eta dinamizazioa" izeneko kontratuaren xedea zerbitzuak ematea denez, proposatzen dute lizitazioa hutsik uztea, aurkeztutako eskaintza ezin delako onartu aurkeztutako eskaintzak ez duelako aterpetxearen arreta eta dinamizazio zerbitzurik aurkezten, lizitatuzaileak horretarako baliabiderik ez duelako.

Beraz, eskaintzak ez du betetzen Baldintza Administrazioen Agirien 2 eta 13. ataletan eta Ezaugarri Teknikoen Agirien 1 eta 3. ataletan ezarritakoa.

Espedienteak dituen agiriak, jasotako dokumentazioa, aipatutako xedapenak eta aplikazio orokorreko gainerako kontuak ikusita

EBAZTEN DUT:

LEHENENGO- Hutsik uztea 001/2016 espedienteari dagokion lizitazioa, Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko (Oñati), "Parketxea eta Arantzazuko aterpetxea erabili eta kudeatzea: zentroen arreta eta dinamizazioa" izeneko kontratua" izenekoa.

BIGARREN.-- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 151 eta 153. artikuluetan adierazitakoaren arabera, interesdunek Kontratazio Mahaiari eskatu ahal izango diote proposamenak baztertzeko erabilitako arrazoiei buruzko informazioa.

HIRUGARREN.- Jakinaraztea esleipen ebazpena interesdunei eta argitaratzea kontratazio organoaren profilean (), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 153 eta 151. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Donostia, 2016ko uztailaren 27a

Alfonso Acarreta Rodríguez
Kontratazio Mahaiaren idazkaria
Secretario de la Mesa Contratación

Vº Bº
Aranzazu Ariztimuño Larraza
Kontratazio Mahaiaren lehendakaria
Presidenta de la Mesa